

# JOSE MARIA AZNAR ESPAÑI'KO JAURLARITZAREN LENDAKARI JAUNARI ZOR ZAION ERASPENEZ (1)

Bi idazlanok Iruña'ko "Diario de Navarra"n agertuak dira. Orregatik doaz Naparroa'ko euskeraz.

Joxemari: Gaur Dagonilla'ren amabosta da: Amabirjiñaren Jasokunde-eguna. Ba, egun ontan, Joxemari, nik ongi ulertzen ez ditudan gai batzuetaz itzegin nai nizuke, erarik adiskidetsuenean.

Gaurko solasaldi ontan, ETA'k zauritu eta edozein erara "kaltetu" dituenetaz itzegin nai nizuke. Eta oien aideetaz. Moralista bezala. Ez politikari bezala, nik politikari ez bait dut. Edo, obeki esanez, nere politika, kristautasunaz gaiñera, Euskera besterik ez bait da: Euskera... ta euskerak berekin dakarren kultura: Euskalduntasuna.

- Lendabiziko gauza au esan nai dizut: Ni ere "viktima" oietako bat nauzula: Ramonita nere arrebaren senarra —neretzako lagunik bikaiñena— Antonio Varela infanteriko komandantea, ETA'k il bait zuen, erarik ustelen eta nazkagarrienean: ixil-ixilik atzetik alderatuta tiro bat emanez. Ori, lotsagarria da. Texas, Kantsas eta Arizona'ko pistolari aiek, naiz benetako gaizkilleak izen, ez zuten inor atzetik koldarki tiro emanez iltzen. Aurrez-aurre eta bizia jokatzuz egiten zituzten beren erailetak.

- "Victima" oien sendikoek Alkarte bat egiñik daukate. Baña izena, "Las Víctimas del Terrorismo" gaizki jarria dute, "Victimen" sendiko guztiak ez bait daude Alkarte ortara sarturik. Bat, adibidez, ni neroni. Eta nik ezagutzen dituten beste asko.

- Alkarte ortakoen, —eta baita zu zerorren eta zure Alderdikoen eta PSOE'tarren itzegiteko erak adierazten duenez, badirudi "Victima" guztiak inpernuan daudela usterik zabilatzatela: gorrotoa bait dario zuen izketa-erari.

Gorrotoa, Joxemari, inpernuko kiratsa da. An ez dago gorrotoa besterik. Gorroto utsa. etenik gabeko gorrotoa, da, an dauden guztien arnasa.

Nik ordea eta nik ezagutzen dituten beste asko ta askok, ziur uste dugu "Victima" oiek zeruan dirala. Eta zeruan gorrotorik ez bait da, ura maitasun utsaren, maitasun garbiaren, maitasun osoaren lekua bait da, an ez dezake inork inor gorrotatu. Zeruan dagoenak giza-kume guztiak maite ditu, baita etsaiak ere, mundu ontan bizi geranok ere Yosukristo'k agindurik daukagun bezala. Zeruan dauden "Victimek" ez diote inorri gorrotorik. Nere arrebaren senarrak, adibidez, benetan maite ditu ain era zikiñean bizia kendu zioten pistola-

riak, eta aiei damurako bidea erakuts deiela, eten gabe, Jainkoari eskatzen ari da.

Badut beste zerbait ere, Joxemari, zuri esan bearra: Zure eta zuretarren izkerak, zuei "Victimak" komeni zaizkizutela dirudi. Ziur nago ez dela orrela izengo, bañan orrela dela dirudi. Zuretzat "Victimak", "Batasuna"rentzat "presoak" duten balio bera dutela. Ez da, noski, orrela izengo, baña orrela dela ematen du. Eta matematikeetako ekuazio au egiazkoa dela

"Presoak : Batasuna : Victimak : Españi'ko Jaurlaritza".

Edo, berdin dena, "zenbat eta preso geiago izen, obe Batasuna'ren politikagintzarako; eta zenbat eta viktima geiago izen... (Ez naiz aurrera jarraitzera ausartzen, Joxemari; Españi'n eta Euskalerrian bertan, gotzaiengandik asita azkeneko gixagaixoa arte, borondate onez zure Alderdikoek direnei zor zaien eraspainak isillerazten bait nau).

Gañera badakit, seguruaski ekuazio ori ez dela egiazkoa izengo, baña egiazkoa dirudiela ere badakit. Eta badakit baita're jende askok orixe uste duela. Eta, ori Joxemari, Españi'ko jendeak aukeratu zaitulako, zu Lendakari zaitun Laterri ontan bizi den jende arras ezberdiña alkarrekin pakean bizitzeko, eragozpenik andiena da; eta gaitzik erioagarriena. Bai beintzet Euskalerrri ontako jende násiarentzat.

Ez du naikoa lendakari batek gizon ona izetea; gizon ona izeteaz gañera, gizon ona delako itxurak ere eman bear ditu.

**Latiegi'tar Bixente 945 220050**

(1) Bi idazlanok Iruña'ko "Diario de Navarra"n agertuak dira. Orregatik doaz Naparroa'ko euskeraz.

